

## **ZESTOAKO ALKATEAK XVI. MENDEAN (1542-1543)**

---

---



Zestoan, hiribildua 1383an sortu zenez gero, urtebeterako hautatzen zuten alkatea. Zestoako 1483. urteko ordenantzetan zehazten denez, irailaren 29an (San Migel egunez) aukeratzen zituzten hiribilduko alkate eta ofizialak. Gure ustez hiribildua sortu zenez gero zuten San Migel egunean alkatea hautatzeko ohitura. Urte batean Zestoako harresi edo errebaletakoa aukeratzen zuten, eta hurrengo urtean Aizarnakoa.

### **XVI. mendeko alkateak (1542-1543)**

- |   |                         |
|---|-------------------------|
| - Frantzisko Zubiaurre                          | (1541-IX-29/1542-IX-29) |
| - San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatua | (1542-IX-29/1543-IX-29) |
| - Joan Fernandez Arreitzakoa                    | (1543-IX-29/1544-IX-29) |

